


# Komunikazio udaleku irekiak. 2021



**Komunikazio udaleku irekiak** antolatu dituzte Mondragon Unibertsitateak eta Goiena Komunikazio Taldeak. Astebeteko bi txanda egongo dira uztailean. Irekita dago izen-ematea.

## Anima zaitez eta eman izena!



### Noiz:

- Lehen txanda, uztailaren 5etik 9ra.
- Bigarren txanda, uztailaren 12tik 16ra.
- Astelehenetik ostiralera, goizez.

### Non:

Mondragon Unibertsitateko Komunikazio Campusean, Aretxabaletan.

### Ordutegia:

09:00-13:30.

### Norendako:

DBH-4ko eta batxilergoko 1. mailako gazteak.

### Izen ematea:

Maiatzaren 3tik ekainaren 18ra.

### Prezioa:

125 euro.

### Izena emateko:

[www.goiena.eus/bereziak/udalekuak](http://www.goiena.eus/bereziak/udalekuak)

### Informazio gehiago:





omunikazio udalekuak antolatu dituzte, lehen aldiz, Goiena Komunikazio Taldeak eta Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak. **Astebete** iraungo dute eta **goizez** egingo dira, Mondragon Unibertsitatearen Komunikazio Campusean, **Aretxabaletan**.

Udalekuak dira DBH-4ko eta batxilergoko lehen mailako **gazteentzat**. **Euskaraz**.

**Bi txanda** egingo dira, astelehenetik ostiralera.

Lehena, uztailaren 5etik 9ra. Bigarrena, uztailaren 12tik 16ra.

Biak ala biak, 09:00etatik 13:30era.

Udalekuen helburua da gazteak modu **kritiko, praktiko eta dibertigarrian** hurbiltzea komunikazioaren mundura. Horretarako, besteak beste, honako gai hauek jorratuko dituzte: kamera aurrean nola jarri, fotokazetaritza, youtuber izateko gakoak, podcastak nola egin, benetako albisteak eta faltsuak nola identifikatu...

Ariketak egiteko, Mondragon Unibertsitateko Aretxabaletako Campuseko baliabideak erabiliko dira: telebista-platoa, ordenagailuak eta beharrezko izango duten bestelako materiala.

Mondragon Unibertsitateko irakasleek eta Goienako **profesionalek** hartuko dute parte komunikazio udaleku ireki horietan. Era berean, landuko diren gaietan ezagunak direnek eta eskarmentua dutenek emango dituzte master-eskolak: **Aiora Mujika** @probatxoa youtuberrak; **Ainhoa Vitoria** komunikatzaile eta Gazteako irrati esatariak; eta Goiena Komunikazio Taldeko **Xabier Urzelaik**, moja edo eskuko telefono adimendunekin ekoiztutako ikus-entzunezkoen edukietan adituak.

Izena emateko epea zabalik dago ekainaren 18ra arte, eta prezioa **125 euro** da. **Plaza mugatuak** izango dira; txanda bakoitzean, gehienez ere, 25 lagun elkartuko dira, eta izena eman ahala beteko dira. COVIDak eskatzen dituen segurtasun neurri guztiak beteko dira udalekuetan.

Komunikazio udalekuen antolatzaileak dira Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioa gradua eta euskarazko tokiko komunikazioan erreferente den Goiena Komunikazio Taldea.

**Izena emateko:**



**600 04 66 89**



| ***komunikazioudalekuak@gmail.com***



**Komunikazio udaleku irekiak.**

ANTOLATZAILEAK:



**Mondragon  
Unibertsitatea**

**Humanitate eta Hezkuntza  
Zientzien Fakultatea**

**goiena**<sup>“</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA